

ARTESHOP BILBAO 2017 PROGRAMAREN OINARRI ARAUTZAILEAK

AURKIBIDEA

1. ZIOEN AZALPENA	3. or.
2. XEDEA	3. or.
3. PARTE HARTZEN DUTEN SALTEGIEN BETEKIZUNAK	3. or.
4. PROIEKTU ARTISTIKOEN SORTZAILEEN BETEKIZUNAK	5. or.
5. PROIEKTUAK EGITEKO ETA ERAKUSTEKO DIRU-LAGUNTZAK	5. or.
6. PROIEKTUAK EKOIZTEKO DIRUZ LAGUN DAITEZKEEN KONTZEPTUAK	6. or.
7. LAGUNTZAK EMATEKO ETA ORDAINTZEKO PROZEDURA	6. or.
7.1. Eskabideak aurkeztea	6. or.
7.2. Aurkeztu beharreko dokumentazioa	7. or.
7.3. Hautaketa-prozesua	8. or.
7.4. Parte-hartzaileak parekatzea	9. or.
7.5. Laguntzen ordainketa	9. or.
8. BETEBEHARRAK,EZ-BETETZEA ETA LAGUNTZAK ITZULTZEA	10. or.
8.1. Onuradunen betebeharrak	10. or.
8.2. Ez-betetzea eta laguntzak itzultzea	11. or.
9. AURREKONTUAREN ESLEIPENA	12. or.
10. PROIEKTU LEHIAKETA	12. or.
10.1. Kontzeptua	12. or.
10.2. Proiektuen hautaketa	12. or.
10.3. Sarien zenbatekoak	13. or.
11. KONFIDENTZIALITASUNA	13. or.
12. PUBLIZITATEA	14. or.
13. PROIEKTUEN JABETZA	14. or.
14. DATU PERTSONALEN BABESA	14. or.
15. HAINBAT BALDINTZA OROKOR	14. or.
16. I. ERANSKINA. ARTESHOP BILBAO 2016 PROGRAMAREN EGUTEGIA	15. or.

1. ZIOEN AZALPENA

Bilbao Ekintza, EPEL erakunde publikoaren bidez eta Euskal Herriko Unibertsitatearen (UPV/EHU) eta Bilbao Arte Fundazioaren laguntzaz, Bilboko Udalak ARTESHOP BILBAO programaren zazpigarren edizioa antolatu du.

ARTESHOP BILBAO programak merkataritza eta arte jardueren arteko sinergia aprobetxatzen du, saltegietan gaitasun sortzailea sustatuta, arte adierazpenerako ohiz kanpoko espazioa sortuta eta erosteko esperientzia aberastuta. Helburu horri helduta, udalerriko merkataritza-establezimenduek ikusgai jarriko dituzte Euskal Herriko Unibertsitateko Arte Ederren Fakultateko ikasleek berariaz egindako artelanak.

Arte Ederren Fakultateko ikasleek Bilbao Arte Fundazioko artisten tutorizazioa daukate, eta, horren bidez, esku-hartzeak gauzatzen lagunduko diete eta horien martxa ona ikuskatuko dute. Halaber, artista-tutore horiek beren esku-hartze artistikoak egiten dituzte hautatutako eremuetan (Erriberako merkaturak, Plaza Biribilean dagoen Turismo Bulego berria, eta abar)

Saltegien eta Arte Ederren ikasleen arteko lankidetzaren emaitza aintzatesteko, hiru proiektu onenak saritzeko lehiaketa egingo da. Artearen eta merkataritzaren profesionalez osatutako taldeak egindako lanak ebaluatu eta hamar finalistak hautatuko ditu. Amaitzeko, ospe handiko epaimahaiak proiektu irabazleak erabakiko ditu.

Bestalde, herritarren parte-hartzearen laguntzaz, Publikoaren Saria ere emango da.

2. XEDEA

Hona hemen ekimenaren helburuak:

- Hiriko merkataritza jarduera babestea, pertsonen erosteko eguneroko esperientziatik harantzago doan zerbaitez gozatzeko ingurune ezberdina eskainita eta ohi ez den bezala haien arreta modu sortzailean deituta.
- Hirian Euskal Herriko Unibertsitateko ikasleen eta Bilbao Arte Fundazioko artisten emaitzak eta lana bistaratzeko leihoa izatea, artearen, lan sortzailearen eta gizartearen arteko bestelako harremanak ezarriz gizartearekin zuzenean harremanetan ipintzeko.
- Merkataritza-jardueraren eta jarduera artistikoaren arteko sinergia aprobetxatzea, saltegietan sormen-gaitasuna sustatuz, eta adierazpen artistikoari ezohiko leku bat eskaintzeaz gain, erosteko esperientzia aberastea.

3. PARTE HARTZEN DUTEN SALTEGIEN BETEKIZUNAK

ARTESHOP BILBAO programaren seigarren edizioan parte hartu nahi duten enpresek honako betekizun hauek bete beharko dituzte:

- a) Merkataritza establezimendua kalean bertan izatea Bilbo udalerrian.
- b) Harekin zerga arloko eskakizunak dituzten administrazio publikoekiko betebeharrak egunean izatea, baita Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak ere. Bilbao Ekintza, EPELk ofizioz egiaztatuko du Bilboko Udalarekiko zerga egoera.
- c) Oinarri hauen iraunaldian eratuta egotea eta jarduera ekonomikoa izatea, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren alta eguna joko dela hasierako datatzat.
- d) Jarduera nagusia honako talde hauetan bildutako Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren taldeetan eta/edo epigrafeetan adierazitakoetako bat izatea, ahal dela:

64 ZENBAIKO TALDEA

- 641 ZENBAIKO TALDEA. Fruten, barazkien, ortuarien eta tuberkuluen txikizkako merkataritza.
- 642 ZENBAIKO TALDEA. Okelen eta erraien, prestatutako okel produktuen eta deribatuen, arrautzen, hegaztien, abeletzeko untzien, ehizakien eta horien deribatuen txikizkako merkataritza.
- 643 ZENBAIKO TALDEA. Arrainen eta arrantzako eta akuikulturako bestelako produktuen eta barraskiloen txikizkako merkataritza.
- 644 ZENBAIKO TALDEA. Ogiaren, pastelen, gozokien eta antzekoen eta esnearen eta esnekien txikizkako merkataritza.
- 645 ZENBAIKO TALDEA. Ardoen eta mota guztietako edarien txikizkako merkataritza.
- 646 ZENBAIKO TALDEA. Tabako lanen eta erretzaileen gaien txikizkako merkataritza.
- 647 ZENBAIKO TALDEA. Elikagaien eta edari orokorren txikizkako merkataritza.

65 ZENBAIKO TALDEA

- 651 ZENBAIKO TALDEA. Ehunen, jantzien, oinetakoen eta larruzko jantzien txikizkako merkataritza.
- 652 ZENBAIKO TALDEA. Sendagaien eta produktu farmazeutikoen txikizkako merkataritza; drogeria, garbiketa, lurringintza eta kosmetikako mota guztietako gaien eta produktu kimiko orokorren txikizkako merkataritza; eta belar-dendetako belarren eta landareen merkataritza.
- 653 ZENBAIKO TALDEA. Etxebizitzako eta eraikuntzako ekipamendurako gaien txikizkako merkataritza.
- 654 ZENBAIKO TALDEA. Lurreko ibilgailuen, aireontzien, itsasontzien eta ordezteko makinen, osagarrien eta piezen txikizkako merkataritza.
- 656 ZENBAIKO TALDEA. Ondasun erabilien (adibidez, altzariak, jantziak eta etxean erabiltzeko ohiko tresnak) txikizkako merkataritza.
- 657 ZENBAIKO TALDEA. Musika-tresna orokorren eta horien osagarrien txikizkako merkataritza.
- 659 ZENBAIKO TALDEA. Txikizkako bestelako merkataritza.

69 ZENBAIKO TALDEA

- 691 ZENBAIKO TALDEA. Etxerako gailu elektrikoak, ibilgailuen eta bestelako kontsumo ondasunen konponketa.
- Beste atal batzuetan adierazi gabeko bestelako konponketak.

75 ZENBAIKO TALDEA

- 755. ZENBAIKO TALDEA. Bidaia-agentziak

94 ZENBAIKO TALDEA

- 944 ZENBAIKO TALDEA. Naturopatia eta akupuntura zerbitzuak eta bestelako zerbitzu parasanitarioak, lanbide jardueraz gain, produktua saltzeko jarduerak duten eta hori merkataritzat jotzen diren epigrafeetako batean duten kasuak izan ezik.
- 945 ZENBAIKO TALDEA. Albaitaritza kontsultak eta klinikak, lanbide jardueraz gain, produktua saltzeko jarduerak duten eta hori merkataritzat jotzen diren epigrafeetako batean duten kasuak izan ezik.

97 ZENBAKIKO TALDEA

- 971 ZENBAKIKO TALDEA. Garbitegiak, tindategiak eta antzeko zerbitzuak.
- 972 ZENBAKIKO TALDEA. Ile-apaindegia eta edertasun etxeak.
- 973 ZENBAKIKO TALDEA. Argazkigintza zerbitzuak, argazki makina automatikoak eta fotokopia zerbitzuak.

Salbuespen gisa, beste talde eta/edo epigrafe batzuetan agertzen diren enpresek parte hartu ahalko dute, baldin eta BILBAO EKINTZAK uste badu horien ezaugarriak eta jardura bat datozela Arteshop programaren izaera eta helburuekin.

Programa honetan parte hartzea izen sozialaren arabera egingo da, hau da, ezin izango da aurkeztu identifikazio fiskaleko zenbaki bera partekatzen duen establezimendu edo saltegi bat baino gehiago. Zirkunstantzia hori agertzen duen establezimendu edo saltegi bat baino gehiago aurkeztzen bada, hori eskatzeko orduan lehenengoa izan denak baino ez du parte hartuko programan.

4. PROIEKTU ARTISTIKOEN SORTZAILEEN BETEKIZUNAK

Saltegietarako proiektu artistikoen sorkuntzan parte hartzeko baita hautatutako eremuetan (Erriberako merkatuan, Plaza Biribilean dagoen Turismo Bulego berrian, eta abar) beharrezkoa da jatorriaren arabera betekizunetako bat betetzea:

- EHUKo Arte Ederren Fakultatean matrikulatutako ikaslea izatea
- Bilbao Arte Fundazioko kide den artista izatea

Ikasleek 4 lagunek, gehienez, osatutako talde gisa aurkeztu ahalko dute beren burua.

Artista-tutoreek 4 lagunek, gehienez, osatutako talde gisa aurkeztu ahalko dute beren burua.

5. PROIEKTUAK EGITEKO ETA ERAKUSTEKO DIRU-LAGUNTZAK

Proiektuak egin eta erakutsi

- Arte Ederren Fakultateko ikasleek 200,00 €-ko diru-kopurua kudeatuko dute, saltegiek jasoko dituzten obrak ekoizteko gastu gisa (diseinua, ekoizpena eta muntaketa). Programa hasieran diru-sartze bat egingo da.
Muga ekonomiko horrek ez du eragotziko hori erabakitzen duten saltegiek proiektuan inbertsio handiagoak egitea.
- Arte Ederretako ikasleek, halaber, **200 euroko zenbatekoa** jasoko dute proiektua garatzeagatik, ikasleak obraren egikaritze materiala burutzeko benetan egindako lanei dagokiena. Ordainketa hori programa amaitzean egingo da.
- Artista-tutoreek **300 euroko** diru-laguntza izango dute obraren ekoizpen gastuetarako (diseinua, ekoizpena eta muntaketa). Diru-sartze hori programaren hasieran egingo da.
- Artista-tutoreek, halaber, **300 euroko zenbatekoa** jasoko dute proiektua garatzeagatik, artistak obraren egikaritze materiala burutzeko benetan egindako lanei dagokiena. Ordainketa hori programa amaitzean egingo da.

- Artista-tutoreek **1.000 euro** jasoko dituzte, programa garatzean Arte Ederren ikasleen proiektuen tutore lanak egiteagatik. Proiektuaren garapenak honako eginkizun hauek barne hartzen ditu:
 - Lanaren ikuskapena, orientazioa eta jarraipena: epeak, lanaren kalitatea, egokitasuna / saltokian ikaslea aurkeztea / Proiektua Onesteko Erabakia sinatzea / espazio publikoa erabiltzeko baimena behar duten proiektuen berri ematea.
 - Saltokien eta Bilbao Ekintzaren arteko bitartekari lanak egitea: Bilbao Ekintzarekin jarraipen-bilerak egitea / ideia desberdinak izatekotan saltokiekin biltzea / saltokiekin zein ikasleekin edozein intzidentzia egonez Bilbao Ekintzari horren berri ematea.
 - Beren tutoretza jasotzen duten ikasleek egindako proiektuen Arteshop lehiaketarako aurrehautaketa.
 - Ikasleek sortutako dokumentazioa kudeatzea (hitzarmenak, fakturak...).

6. PROIEKTUAK EKOIZTEKO DIRUZ LAGUN DAITEZKEEN KONTZEPTUAK

Proiektuak ekoizteko laguntza ekonomikoak horien diseinuari, garapenari eta muntaketari beren-beregi lotutako gastuak diruz laguntzeko dira.

Honako hauek joko dira diruz lagun daitekeen gastutzat:

- a) Ekoizpen artistikoa egiteko materialen eta tresnen gastuak.
- b) Ekoizpen artistikoaren materialak edo elementuak tailerretatik merkataritza establezimendura garraiatzeko gastuak.
- c) Ekoizpenen muntaketatik ondorioztatutako gastuak.

Material ez-suntsikorren ondoriozko gastu guztiak diru-laguntza jaso dezaketen kontzeptu guztietatik kanpo geratuko dira.

7. LAGUNTZAK EMATEKO ETA ORDAINTZEKO PROZEDURA

7.1. Eskabideak aurkeztea

Saltegiak

Eremu guztiak behar bezala bete eta derrigorrezko dokumentazioa erantsi ondoren, eskabideak Bilbao Ekintzako Enpresa-sustapenaren arloan (**Merkataritza Sailan**) aurkeztu beharko dira, *2017eko otsailaren 15tik aurrera*, honako bulego hauetan: K/ Nafarroa 5, 3.a (Tel.zk.: 94 420 53 30/ 94 420 54 06). Eskabideak aurkezteko azken eguna *2017eko martxoaren 15ra* izango da. Eskabideak hartzeko ordutegia 9:00etatik 14:00etara bitartekoa da.

Halaber, posta elektronikoz ere aurkeztu ahalko da, derrigorrezko dokumentazioa honako helbide honetara bidalita: comercio@bilbaoekintza.bilbao.net

Saltegiek hori aurkeztu izana egiaztatzen duen frogagiria eskuratu ahalko dute. Posta elektronikoz aurkeztuz gero, egiaztapena formatu horretan bertan eskainiko da.

Ez da onartuko eskatutako dokumentuetako baten bat ez duen eskabiderik. Gehienez ere, 75 saltokik hartu ahal izango dute parte, eta, betiere, Arte Ederretako hautatutako ikasleen kopurua bera baldin bada. Parte hartzen duten saltegien kopurua gehienez 75 izango denez, lehenengo 75 eskabideak eman ondoren aurkezten diren saltegiak

erreserban geratuko dira, proiektuak diseinatzeko eta gauzatzeko aldia hasi baino lehen saltegi batzuk programatik iriteten badira horiek sartzeko.

Ikasleak

Eremu guztiak behar bezala bete eta derrigorrezko dokumentazioa erantsi ondoren, eskabideak **Euskal Herriko Unibertsitateko Arte Ederren Fakultateko Idazkaritzan** aurkeztu beharko dira, *2017eko otsailaren 15tik aurrera*. Eskabideak aurkezteko azken eguna *2017eko martxoaren 15ra* izango da.

Ikasleek banaka edo beste ikasle batzuekin batera parte hartu ahalko dute proiektuan, parte hartzeko eskabidean adierazten denaren arabera.

Artistak

Eremu guztiak behar bezala bete eta derrigorrezko dokumentazioa erantsi ondoren, eskabideak **Bilbao Arte Fundazioko Idazkaritzan** aurkeztu beharko dira, *2017eko otsailaren 15tik aurrera*. Eskabideak aurkezteko azken eguna *2017eko martxoaren 17ra* izango da.

7.2. Aurkeztu beharreko dokumentazioa

Saltegiak

- ARTESHOP BILBAO 2017 programan parte hartzeko eskabide-fitxa.
- Ordezkapen-ahalordearen eta IFZren kopia (enpresak).
- NANaren kopia (pertsona fisikoak).
- Zerga-betebeharren ordainketa egunean izateari buruzko ziurtagiria.
- Gizarte Segurantzako kuoten ordainketa egunean izateari buruzko ziurtagiria.
- JEZko altaren kopia.

Ikasleak

- ARTESHOP BILBAO 2017 programan parte hartzeko eskabide-fitxa.
- Banku-datuen fit
- NANaren kopia.
- Txostena (paperean edo pdf-n), gehienez 10 orrikoa. Curriculum laburra eta 10 irudi, gehienez, dituen portfolioa barne hartuko ditu.

Artista-tutoreak

- ARTESHOP BILBAO 2017 programan parte hartzeko eskabide-fitxa.
- NANaren kopia
- Banku-datuen fitxa.
- Zerga-zorren ordainketa egunean izatea egiaztatzen duen agiria.
- Gizarte segurantzaren kuoten ordainketa egunean izatea egiaztatzen duen agiria.

- Curriculum.
- Hautatutako eremuetan (Erriberako merkatuan, Plaza Biribilean dagoen Turismo Bulego berrian, eta abar) esku hartzeko proiektua.

7.3. Hautaketa-prozesua:

Saltegien hautaketa

Bilbao Ekintza EPEL parte hartzen duten saltegiak hautatzeaz arduratuko da. Horretarako, jarraitu beharreko irizpidea oinarri hauetan adierazitako tokian eskabideak aurkezteko ordena izango da.

Gehienez, 75 saltegiak parte hartu ahalko dute. Oinarri hauetako 7.2 idatz-zatian adierazitako dokumentazio osoa ematen duten lehenengo 75 saltegiak, hautatutakoak izango dira.

Ez da onartuko eskatutako dokumentuetako baten bat ez duen eskabiderik.

Saltegiari hautatu dela jakinarazi ondoren, horrek 50,00 €-ko diru-sarrera egin beharko du Bilbao Ekintza, EPELek adierazten dion kontu-zenbakian, 5 laneguneko epean.

Ikasleen hautaketa

Euskal Herriko Unibertsitateak ikasleen hautaketa egingo du, objektibotasuna, berdintasuna eta bereizkeriarik eza bermatzen dituzten irizpideei jarraituz. Ikasleak hautatu ondoren, UPV-EHUK ikasleen zerrenda bidaliko dio Bilbao Ekintzari. 75 hautagaitzari hautatuko dira, gehienez.

Artista-tutoreen hautaketa

Bilbao Arte Fundazioak artisten hautaketa egingo du, objektibotasuna, berdintasuna eta bereizkeriarik eza bermatzen dituzten irizpideei jarraituz. Artistak hautatu ondoren, Bilbao Arte Fundazioak artisten datuak bidaliko dizkio Bilbao Ekintzari. Tutorizazioa gauatzeko eta hautatutako eremuetan (Erriberako merkatuan, Plaza Biribilean dagoen Turismo Bulego berrian, eta abar) esku hartzeko 10 hautagaitzari hautatuko dira, gehienez.

Parte-hartzaileen behin betiko kopurua

ARTESHOP BILBAO 2015 programak saltegien eta ikasleen kopuru berdinak lotzen ditu. Ezarritako hautaketa sistema aplikatuta, baliteke kategoria horietako baten batean onartutako kandidatek kopurua ezarritako gehienekoa baino txikiagoa izatea; kasu horretan, bi taldeetako bakoitzeko parte-hartzaileen azken kopurua kide gutxien biltzen dituen kategorian onartutako eskabideen kopuruak zehaztuko du.

Nolanahi ere, parte-hartzaileen gehieneko kopuruak ezin izango du gainditu 6.3 idatz-zatian onuradunentzat ezarritakoa.

7.4. Parte-hartzaileak parekatzea

2017eko martxoaren 29an egindako parekatzeak ezagutuko dira.

Saltegia eta ikaslea parekatzea

Saltegiak eta ikasleak parekatzeko, saltegiek eta ikasleek parte hartzeko eskabideak aurkeztu diren ordenari jarraituz egingo da.

Artista-tutorea eta saltegia parekatzea

Artista-tutoreak eta saltegiak parekatzeko, parte hartzen duten saltegien arteko hurbiltasun geografikoa hartuko da kontuan, proiektuen jarraipen lanak errazteko asmoz.

Proiektuetarako eta tutoreentzat aurreikusitako kopuruak 75 eta 10, hurrenez hurren, izateak, suposatuz gehieneko parte-hartzaile kopurua bi kategorietako iristean, artista-tutoreen erdiak zortzi proiektu zuzentzea eta ez zazpi, gainerakoak bezala, dakar. Gaiari buruzko azken erabakia Bilbao Arte Fundazioak hartuko du.

7.5. Laguntzen ordainketa

Ekoizpen gastuak

Bilbao Ekintzak diru-sarrera egingo dio ikasleari edo artistari ekoizpen gastuei dagokien zenbatekoan, proiektuak diseinatzeko eta gauzatzeko aldia abiarazten den unean. Ordainketa 200 €-koa ikasleentzat eta 300 €-koa artistentzat izango da.

Ondoren, ikasleak edo artistak gastuen egiaztapena aurkeztuko du, horien fakturekin eta ordainagiriekin batera.

Fakturek proiektuak diseinatzeko eta gauzatzeko alditik horiek muntatzen amaitzeko azken egunera bitarteko bidalketa-eguna izango dute. Hau da, *2017eko apirilaren 1tik ekainaren 17ra*,

Proiektuko kobrantza eskaera bakarra aurkeztu ahalko da, eta horretan egokitzen jotzen diren fakturak gehituko dira.

Laguntza ikaslearen/artistaren fitxan adierazitako bankuko kontuan ordainduko da.

Bilbao Ekintzak oinarri hauetan adierazitako betekizunak betetzen ez dituzten edo diruz lagun daitekeen kontzeptuarekin bat ez datozen fakturak ordaintzea ukatu ahalko du.

Kobrantza eskaera aurkezteko epea *2017eko ekainaren 30ean* amaituko da.

Proiektuak garatzeko, tutorizazioa egiteko eta proiektu finalistak hautatzeko ordainketa

Ikasleak

Ikasleei 200,00 euroko diru-sarrera ordainduko zaie proiektuaren garapenagatik, programa amaitzen denean. *2017eko ekainaren 30ean* amaitzea aurreikusi da.

Ekoizpen gastuak ezarritako 200 euroko diru-kopurutik beherakoak badira, gainerako diru-kopurua proiektua garatzeko emandako laguntza ekonomikoaren zenbateko osotik kenduko da.

Ordainketa ikasleak aurkeztutako banku-datuen fitxan adierazitako kontu-zenbakian egingo da.

Artista-tutoreak

Artistei 1.000,00 euroko diru-sarrera (proiektuen tutorizazio lana) eta 300,00 euroko diru-sarrera (Erriberako merkatuko edo Turismo Bulego berriko esku-hartzea) ordainduko zaizkie, programa amaitzen denean. *2017eko ekainaren 30ean* amaitzea aurreikusi da.

Ekoizpen gastuak ezarritako 300,00 euroko diru-kopurutik beherakoak badira, gainerako diru-kopurua proiektua garatzeko emandako laguntza ekonomikoaren zenbateko osotik kenduko da.

Ordainketa artistak aurkeztutako banku-datuen fitxan adierazitako kontu-zenbakian egingo da.

Taldeentzako ordainketa

Taldeak aurkeztutako proiektuei dagokienez, laguntza ekonomikoak parte hartzeko eskabidean adierazitako kontu-zenbakian ordainduko dira. Bilbao Ekintzak bere burua salbuetsi du taldeko kideen harremanetik ondorioztatutako edozein erantzukizunetatik, ekoizpen gastuengatik zein proiektuaren garapenagatik laguntza ekonomikoa ordaindu ondoren.

8. BETEBEHARRAK, EZ-BETETZEA ETA LAGUNTZAK ITZULTZEA

8.1. Onuradunen betebeharrak

Saltegiak

- Proiektua diseinatzeko eta garatzeko, artistarekin batera lan egiteko gogo ona izatea.
- Ekoizpen artistikoa kanpainarako ezarritako aldiaren eta horretarako egingo den lehiaketaren aldiaren erakustea. Lehiaketarako aurreikusitako datak *2017eko ekainaren 5etik 18era* bitartekoak dira.
- Programaren esparruan garatzen diren prestakuntza-saioetan edo tutoretzetan parte hartzea.
- Kanpaina hedatzea.
- Lehiaketaren sariak finantzatzeko kuota ekonomikoa ordaintzea.
- Erantzukizun zibileko aseguruia izatea, bere instalazioetan proiektuak erakustetik ondorioztatutako arriskuak estaltzen dituenak.

Ikasleak

- Esku-hartzeak diseinatu, ekoiztu, muntatu eta desmuntatzea.
- Saltegiarekin eta esleitutako tutorearekin batera lan egiteko gogo ona izatea.
- Programaren esparruan garatzen diren prestakuntza-saio edo tutoretza guztietan parte hartzea.

Artista-tutoreak

- Euskal Herriko Unibertsitateko ikasleen esku-hartzeen diseinua, ekoizpena, muntaketa eta desmuntaketa tutorizatzea.
- Bilbao Ekintzako arduradunei saltegietako esku-hartzeen garapenaren berri ematea.
- Programa antolatzeko eta jarraitzeko bileretara joatea.
- Erakusketa-eremuetan egindako esku-hartzearen diseinua, produkzioa, muntaketa eta desmuntaketa (Erriberako merkaturia, Bilbao Turismoko bulegoa).
- Tutoretza jaso duten proiektuen memoria teknikoa.

Tutoreek, saltegiek eta ikasleek, gertaeraren erakunde antolatzailea den aldetik, Bilbao Ekintzak eskatzen duen informazio osoa eman beharko diote.

Halaber, proiektuaren garapenean eta programa honetan parte hartzea ahalbidetu dieten baldintzetan egondako edozein aldaketaren berri eman beharko diote Bilbao Ekintzari unean-unean.

Proiektuen gaia eta edukia libreak izango dira. Hala ere, Bilbao Ekintzak hirugarren pertsonen ohorearen aurka doazen edukiak barne hartzen dituzten proiektuak baztertu ahal izango ditu, bai eta gizartearen gaitzespena eragin dezaketenak, ordena publikoaren kontrakoak direnak edo legearen barruan ez daudenak. Horrez gain, eragindako arloaren arabera indarrean dagoen araudia errespetatuz lortutakoak izan beharko dira.

8.2. Ez-betetzea eta laguntzak itzultzea

Saltegiak

Saltegiek programa honetako oinarriek zehazten dituzten betekizunak eta betebeharrak ez betetzea horiek programatik baztertzeko arrazoia izango da.

Ikasleak

Ikasleak ekoizpen fasean zein esku-hartzearen muntaketa fasean ez betetzeak programatik baztertzeko ekarriko du, kobratu gabe zeuden laguntza ekonomikoak jasotzeko eskubidea galduta eta jasotako laguntza ekonomikoak itzuli beharra sortuta.

Erabaki hori Bilbao Ekintzako Zuzendaritzaren ebazpenaren bidez adieraziko da. Ebazpen horren aurretik, erakundeko zerbitzu teknikoek gaiari buruzko txostena egingo dute.

Artista-tutoreak

Tutoreak esleitutako ikasleen esku-hartzearen ikuskapena ez betetzeak programatik baztertzeko ekarriko du, laguntza ekonomikoak jasotzeko eskubidea galduta.

Halaber, hautatutako eremuetan (Erriberako merkaturia, Plaza Biribilean dagoen Turismo Bulego berria, eta abar) ekoizpen fasean zein esku-hartzearen muntaketa fasean ez betetzeari dagokionez, artistak kobratu gabe zeuden laguntza ekonomikoak jasotzeko eskubidea galduta du, eta jasotako laguntza ekonomikoak itzuli beharra sortuko da.

Erabaki hori Bilbao Ekintzako Zuzendaritzaren ebazpenaren bidez adieraziko da. Ebazpen horren aurretik, erakundeko zerbitzu teknikoek gaiari buruzko txostena egingo dute.

9. AURREKONTUAREN ESLEIPENA:

Bilbao Ekintzak honako diru-kopuru hauek erabiliko ditu laguntza ekonomikoetarako:

Proiektua saltegietan ekoiztea:	15.000,00 €
Ikasleek proiektua garatzea:	15.000,00 €
Artista-tutoreen tutorizazioa:	10.000,00 €
Artista-tutoreek proiektua Erriberako merkatuan/Turismo Bulegoan ekoiztea:	3.000,00 €
Artista-tutoreek proiektua garatzea:	3.000,00 €

10. PROIEKTU LEHIAKETA

10.1. Kontzeptua

Lehiaketa egingo da, eta bertan Euskal Herriko Unibertsitateko ikasleek egindako 3 proiektu onenak sarituko dira. Halaber, finalistak diren lehenengo hamar proiektuei aintzatespen publikoa egingo zaie, eta hiru irabazleak bereziki nabarmenduko dira. Aintzatespen horrek saltegi eta ikasle irabazleentzako proiektzio soziala eta mediatikoa ekarriko du.

Aldi berean, Programak irauten duen bitartean herritarren parte-hartzea sustatu nahian, herritarrei Jendearen Saria emateko bozketan parte hartzeko gonbitea luzatu nahi zaie, Arte Ederren ikasleen proiektua erakutsi duen saltegietako bat aukeratuz.

Hauek dira, besteak beste, lehiaketa honen helburuak:

- Jendeak Arte Ederren ikasleek egindako lana aintzatestea.
- Herritarren parte-hartzea sustatzea.
- Ikasleen proiektuak eta parte hartzen duten dendak bistaratzea webgunearen bitartez.
- Proiektua ezagutzera ematea ARTESHOP BILBAOren webgunearen eta sare sozialen bitartez.

10.2. Proiektuen hautaketa

Parte hartzen duten hirurogeita hamabost proiektuetatik hamar onenak hautatuko dira, hiru irabazleak hautatuko dituen epaimahaiaren lana errazteko asmoz. Programa sustatu duten hiru erakundeetako ordezkariak eta tutoreek osatutako taldeak hori egingo du, kanpaina garatzen den bitartean.

Horrez gain, hiru proiektu irabazleak hautatzeaz arduratzen den epaimahaia kultura eta merkataritzako adituek eta pertsona ospetsuek osatuko dute, bai lehiaketan parte hartuko duten 10 proiektuak hautatzeko bai epaimahaiaren ondoko epaia hartzeko. Proiektuak ebaluatzen honako irizpide hauek hartuko dira aintzat, 100 punturen gainean, guztira, horietako bakoitzak duen berariazko pisua kontuan hartuta:

- Ekoizpenen kalitate artistikoa: 50 puntu.
- Negozioaren ezaugarrietara eta eskaintako produktura/zerbitzura egokitzea: 30 puntu.
- Obraren kostuaren eta eraginaren arteko erlazioa: 10 puntu.
- Obra ekoizteko orduan, ikasleak zein neurritan gehitu dituen saltegiko elementuak: 10 puntu.

Jendearen Saria

Jendearen sariaren proiektu irabazlea hautatzeko, bozketak telefonoz egingo dira, parte hartzen duen saltoki bakoitzari telefono-zenbaki bat esleitu ostean. Esleitutako telefono-zenbakietara egindako deiak doakoak dira, eta egiten den identifikazio-zenbakiaren arabera erregistratzen da botoa. Zentzu horretan, boto bakarra erregistratuko da identifikazio-zenbaki bakoitzeko, eta, zenbaki beretik dei bat baino gehiago egingo balitz, epean emandako azken botoa zenbatuko litzateke.

Emandako boto guztiak zenbatu ostean, Jendearen Saria irabazi duen saltegia zein den erabakiko da.

Deiak 2017eko ekainaren 5tik 14era izango dira

10.3. Sarien zenbatekoak

Epaimahaiak hiru sari emango dizkie hiru proiektu onenak egiten dituzten ikasleei. Hona hemen sarien zenbatekoa:

- Lehenengo saria: 1.200,00 €
- Bigarren saria: 900,00 €
- Hirugarren saria: 600,00 €

Jendearen Saria herritarren parte-hartzeari esker emango da; onuraduna obra egin duen Arte Ederretako ikaslea izango da eta zenbatekoa hauxe izango da:

- Jendearen Saria: 450€

Horrenbestez, emandako sariaren aintzatespen bat jasoko dute saltoki irabazleek, saltokian erakutsi ahal izango dutena.

Bestalde, inplikazioagatik, beste aintzatespen bat gehiago emango zaie epaimahaiak hautatutako hiru saltoki irabazleei, hau da, Arteshop ekimenaren hurrengo deialdian zuzenean parte hartu ahal izango dute (doan).

Aurtengo 2017ko edizioan, puntualki, aurreko edizioetan epaimahaiak aintzatetsitako saltoki guztiei parte hartzeko gonbidapena egingo zaie.

11.KONFIDENTZIALITASUNA

Programaren esparruan sortutako informazioa ez da erabiliko haren eremuko helburua ez den beste baterako. Horrela, datu pertsonalen zein enpresa datuen konfidentzialtasuna bermatuko da, oinarri hauetan adierazten diren publikitate arloko gaitasunei kalterik egin gabe.

12. PUBLIZITATEA

Bilbao Ekintza, EPELk programa honen onuradunen (saltegiak zein ikasleak eta artistak) zerrenda argitaratuko du bere iragarki taulan.

Bilbao Ekintzak programa honetan parte hartzen duten proiektuak hedatu ahalko ditu, komenigarritzat jotzen dituen baliabideen (testuak, argazkiak, bideoak eta abar) bidez eta bidezko euskarriak (komunikabideak, gune birtualak, sare sozialak eta abar) erabilita.

Programan parte hartze hutsez bai saltegiek bai ikasleek eta artistek beren ekimenak komunikabideetan hedatzen laguntzeko prest daudela bermatzen dute, elkarriketen, artikuluen, erreportajeen eta abarren bidez, Bilbao Ekintzaren koordinazio eta kudeaketapean.

13. PROIEKTUEN JABETZA

Egindako proiektuen jabetza intelektual eta materiala ikasle eta artistena izango da, proiektuaren garapenean erakusten den saltokiak edo eremuak nolabaiteko ekarpen ekonomiko zein materiala bat egin badu ere.

Kanpaina amaitzearekin batera ARTESHOP BILBAO programa amaitu eta gero, saltegiek eta ikasleek egin ditzaketen akordioak Bilbao Ekintzaren partaidetzarik gabe gauzatuko dira. Hori dela eta, arlo horretako edozein erantzukizunetatik salbuetsita egongo da.

Era berean, programa amaitu ondoren eta saltegiarekin akordiorik lortu ezean, ikasleak proiektua kendu beharko du aste bateko gehieneko epean. Hori kentzen ez badu, saltegiak berak egin ahalko du, baina ikasleak hori kentzetik ondorioztatzen diren gastu guztiak ordaindu beharko ditu.

14.DATU PERTSONALEN BABESA.

1999ko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan xedatzen denaren arabera, Bilbao Ekintzak hau jakinarazten du: Programa honetan parte hartzeko dokumentazioan adierazitako datu pertsonalak fitxategi batean gordeko dira eta fitxategi hori Bilbao Ekintza, E.P.E.L. sozietatearen (Nafarroa kalea 5, 48001 Bilbo) titulartasuneko izango da eta eskaintzen dituen zerbitzuak kudeatzeko erabiliko ditu. Horrez gain, datuen segurtasun osoa ziurtatzeko beharrezkoak diren segurtasun-neurriak betetzen ditu eta baimena ematen du bere datuak aholkularitza, organismo publiko, fundazio, elkarte edo finantza-erakundeei lagatzeko. DBLOK berariaz aitortzen dituen datuak eskuratu, zuzendu, ezeztatu eta aurka egiteko eskubideak gauzatu ahal izango dira. Horretarako, Bilbao Ekintzari idatzi bat bidaliko zaio.

15. HAINBAT BALDINTZA OROKOR.

Bilbao Ekintzak egoera zalantzarrietan Oinarri hauek interpretatzeko eskubidea erreserbatuta du, eta bere erabakiak behin betikoak izango dira.

Ezinezbestean edo lege-aginduz, lehiaketa hau bertan behera utzi edo eten egin behar bada, Programa honetan parte hartzeak parte-hartzaileak Oinarriak osorik onartzen dituela esan nahi du.

16. I. ERANSKINA. ARTESHOP 2016 PROGRAMAREN EGUTEGIA

- | | |
|------------------------------------|---|
| - Otsailaren 15 – martxoaren 15ra: | Saltegiek, ikasleek eta artista-tutoreek izena emateko aldia. |
| - Martxoaren 15a – martxoaren 29a: | Saltegiak, artistak eta ikasleak parekatzea. |
| - Apirilaren 1a – maiatzaren 31a: | Obren diseinua eta ekoizpena. |
| - Maiatzaren 29a- ekainaren 2a: | Ekoizpenen muntaketa. |
| - Ekainaren 5a – 18a: | ARTESHOP 2017. |